



# Bizikletaz

26. zenb.  
2018ko uztaila  
Doako argitalpena



**Azитайn-Maltzaga  
bidegorria  
aurkeztu dute  
Eibarko herritarren  
aurrean**



**Aldundiak Bide  
Berdeak Suspertzeko  
lehen Jardunaldiak  
antolatu ditu  
Zumarragan**



**Helduek bizikletan  
ibiltzen ikasteko  
ikastaroak herri  
gehiagotara  
iritsi dira**





# Azitain-Maltzaga bidegorria aurkeztu dute Eibarko herritarren aurrean

**Mugikortasuneko diputatu Marisol Garmendiak eta hiriko alkate Miguel de los Toyosek Elgoibarrekiko konexioa osatuko duen tartea azaldu zuten Itzulia zela eta ipinitako karpa batean**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskal Herriko Itzulia Eibarrera iritsiko zela baliaituta, Azitain-Maltzaga bidegorriaren proiektua helarazi zien herritarrei. Foru Aldundiko Mugikortasun Departamentuak stand bat ipini zuen Untzaga plazan, Eibar eta Elgoibar oinezkoentzat eta txirrindularientzat lotuta utziko dituen tarte horren xehetasunen berri emateko.

Bizikletari hain lotuta dagoen egun horretan, egingo den obra azaltzen zuen bideo bat proie-

ktatu zen Aldundiaren standean, eta pertsona batek informazioa osatu eta hurbildutako herritar ugarien zalantza eta galderei erantzun zien. "Itzulia Eibarrera iristeak aukera paregabea eskaini zigun Eibarko eta Debabarrena osoko herritarren premia eta irrika historiko bati erantzungo dion bidegorri-proiektua sozializatzeko eta azaltzeko", baloratu du Mugikortasuneko diputatu Marisol Garmendiak. Eibarko alkate Miguel de los Toyosekin batera, Garmendiak karpa baliatu zuen proiektuaren aurkezpena egiteko eta Eibarko herritarren iritzia zuzenean ezagutzeko. Gainera, Itzuliaren antolatzaile batzuk ere hurbildu ziren Garmendiak eta De los Toyosek egindako azalpena entzuterako. Izan ere, txirrindulari profesionalen proba ospetsu horrek babesa agertu dio Mugikortasun Departamentuari bizikleta kirolean zein eguneroko erabileran bultzatzeko zereginen.

Azitain-Maltzaga proiektua lizitazioaldian dago gaur egun, 5,1 milioi euroko gehieneko aurrekontua dauka, eta epearen barruan dago obrak aurten bertan hasi eta, dena behar bezala egiten bada, datorren urtearen amaierarako amaitu ahal izan daitezke. Bi kilometro inguruko tartea da, Eibarko Barrena kaletik Maltzagaraino iristen dena (Elgoibartik hasita bidegorria amaitzen den lekuraino, alegia). Ez da tarte luzea, baina bertako orografia gorabeheratsua da, eta bost pasabide egin beharko dira errepideak, Ego eta Deba ibaiak eta Euskotrenen trenbidea gainditzeko.



# Aldundiak Bide Berdeak Suspertzeko lehen Jardunaldiak antolatu ditu Zumarragan

Gipuzkoako Bide Berdeak Suspertzeko Jardunaldien lehen edizioa Zumarragan egin zen joan den maiatzaren 10ean eta 11n. Jardunaldi horiek Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun Departamentuaren ekimena dira. Mugikortasuneko diputatu Marisol Garmendiak Etorkizuna Eraikiz foru-estrategiaren barruan kokatu du "mugikortasun jasangarri eta osasungarriko eta turismo berdeari lotutako toki- eta eskualde-garapeneko" ekimen hori. Gipuzkoan dauden bide berdeen sei tarteek (86 kilometro) "aukera handiak eskaintzen dizkiote lurraldeari, eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak ahalik eta neurririk handienean balia daitezzen nahi du". Horretarako, Garmendiaren ustez, "udalekin, eskualdeko garapen-agentziekin, agente turistikoekin eta bizikletaren sektorearekin batera lan egin beharra dago". Eta bide horretan aurrera egiteko antolatu ziren, hain zuzen ere, Zumarragako jardunaldiak.

Marisol Garmendiak berak, Zumarragako alkate Mikel Serranok eta diputatu nagusiorde Denis Itxasok jardunaldien hasierako ekitaldian parte hartu zuten. Jardunaldiak antolatzeko, Mugikortasuneko Departamentuak Basquetour Turismoaren Euskal Agentziaren eta Gi-

puzkoako Foru Aldundiko Turismo Departamentuaren laguntza jaso du.

Bi egunetan, erakundeek berreskuratutako bide berdeen esperientzia arrakastatsuek ezagutarazi ziren: Vasco-Navarro trenbidearen bide berdea dinamizatu eta sustatzeko plana (Basquetour); Nafarroako bide berdeak eta EuroVelo bizikleta-ibilbidean duten lekua (Nafarroako Gobernua); Carrilet Olot-Girona izenekoaren garapena eta abian jartzea (Gironako Bide Berdeen Partzuergoa)... Parte hartu zuten beste zenbaiten artean, Fundacion de Ferrocarriles Españoles erakundea (bide berdeen ahalmen turistikoaren berri eman zuena), Andoaingo Bizibiziki turismoko aholkularitza-enpresa eta bizikletaren industrian puntakoa den Orbea enpresa (kiroleko bizikletari lotutako turismoaren sustapenean duen esperientziaren berri eman zuena) azpimarra daitezke. Jardunaldietan ehun bat pertsonak hartu zuten parte. Programaren barruan, tailer bat egin zen eskualdeko agentzietako ordezkariekin, eta esperientzia praktiko bat egiteko aukera izan zen: bizikleta-ibilaldi bat bide berdean zehar, Zumarragako Zelai Aristi plazatik Loiolako basilikaraino.

## Aldundiak 970.000 euroko inbertsioa egingo du Lezo-Pasai Donibane bidegorriaren hurrengo tartea egiteko



Lezoko Udalak Lezo eta Pasai Donibaneko udalerriak lotuko dituen eta oinezkoentzako pasealekua izango duen bidegorriaren 3. tartearen obra amaitu zuen 2017. urtearen amaieran. Lezoko erdialdetik hurbilen zegoen tartea zen. Obrei esker, nabarmen hobetu dira pertsonen segurtasuna, mugikortasuna eta ongizatea, eremua soluzio egoki baten bidez berritu baitute; izan ere, oinezko eta txirrindulari asko ibiltzen dira eremu horretan, eta duela gutxi arte seguruak ez ziren lekuetatik ibili behar zuten. Proiektuak 635.000 euroko kostua izan zuen, eta, udalarekin sinatutako hitzarmen bati jarraikiz, Gipuzkoako Foru Aldundiak % 85eko ekarpena egin zuen.

Aurten, Oarsoaldeko bi herri horiek oinez eta bizikletaz lotzeko konpromisoari jarraikiz, Foru Aldundiko Mugikortasun Departamentuak 970.000 euroko partida bat onartu du Pasai Donibane eta Lezo lotzeko proiektu horren bigarren tartearen obra finantzatzeko.

## Eskuragarri dago bizikleta bidezko mugikortasun-politiken gida Gipuzkoako, Nafarroako eta Pirinio Atlantikoetako udalerrientzat

Gipuzkoako Foru Aldundiak "Bizikleta eta tokiko gobernuak. Bizikleta bidezko mugikortasun-politiken gida Gipuzkoako, Nafarroako eta Pirinio Atlantikoetako udalerrientzat" editatu du. Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez argitaratu da, eta Aldundiak editatu du Nafarroako Gobernuarekin, Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluarekin eta Gipuzkoa, Nafarroa eta Pirinio Atlantikoetako beste bederatzita toki-erakunderekin lankidetzan. Proiektua mugaz gaindiko Ederbidea programaren esparruan garatu da. Programa horretan, adierazitako erakunde horiek guztiek laguntzen dute bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzen.

Bizikleta bidezko mugikortasunaren oinarri teorikoekin, arlo horretako esku-hartze publikoaren ardatzekin eta tokiko administrazioek egin beharreko askotariko jardunekin batera, jardunbide egokiak garatu dira Ederbidean parte hartzen duten lurraldeetan. Horren guztiaren emaitza da gida. Adierazitako hiru lurraldeetako arduradun politikoei eta udal-

teknikariei zuzenduta dago nagusiki, eta bizikleta bidezko joan-etorriak eta bizikletaren eguneroko erabilera normalizazioa bultzatzen lagunduko duten erabakiak hartzeko baliagarria izatea du helburu.



## Helduek bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaroak herri gehiagotara iritsi dira



Eibarko eta Erreterriako esperientzia ona izan denez gero, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko Departamentuak beste udalerrri batzuetara zabaldu ditu helduek bizikletan ibiltzen ikasteko eta hasteko ikastaroak. Maiatzaren 26-27ko eta ekainaren 2-3ko asteburuetan, Zumaiako Herri Eskolan egin ziren aurtengo udaberriko lehen prestakuntza-saioak.

Ikastaroak, halaber, Pasaian (4tik 14ra Trintxerpen eta 18tik 28ra Antxon) eta Eskoriatzan (14, 15, 19, 21, 22 eta 26an) egingo dira.

Mugikortasuneko diputatu Marisol Garmendiak Zumaiako ikastaroen aurkezpena egin zuen herriko alkate Oier Kortarekin batera, eta, gogorazi zuenez, "adineko askok ez dute bizikletan ibiltzen ikasi, edota urte asko daramatzate bizikleta batera igo gabe. Animatu egin nahi ditugu, eta esan nahi diegu modu erraz eta seguruan ikas dezaketela bizikletan ibiltzen, bizikletan paseatzen gozatu ahal izateko".

Datozen hilabeteetan, prestakuntza-eskaintza hori beste ildo batzuekin sendotuko da. Adibidez, bizikleta bat elektrifikatzen ikasteko tailerrak egingo dira.

## Udalerriei bidegorriak egiteko emango zaizkien laguntzak bikoiztu egingo dira, eta 150.000 eurora iritsiko dira

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko Departamentuak 150.000 euro bideratuko ditu aurtten 10.000 biztanletik beherako herrietako udalei bertako bidegorrien sareak zabaltzen laguntzeko. Diputatuen Kontseiluak joan den apirilean onartu zuen udal-bidegorriak egiteko edo hobetzeko obrak finantzatzera bideratutako ekimen hori. Ekimenaren zenbatekoa aurreko ekitaldikoaren bikoitza izango da. "Badakigu udalak ahalegin handia egiten ari direla txirrindulari eta oinezkoentzako bideak egiteko; horregatik, aurtten bikoiztu egin dugu Foru Aldundiaren laguntza", adierazi du Mugikortasuneko diputatu Marisol Garmendiak.



Laguntza horien berri emateaz gain, jakinarazi zuen aurki informazio-kartel berriak ipiniko direla hainbat bidegorritan, hain zuzen ere honako hauetan: Pasaia-Arditurri, Lasarte-Oria-Añorga, Andoain-Leitza, Irun-Endarlatsa, Tolosa-Ormaiztegi, Zumarraga-Azpeitia, Eskoriatza-San Prudentzio-Bergara-Oñati eta Soraluze-Antzuola. Ibilbideen distantzien, bide berdeko tarteen eta zeharkatzen diren udalerrien berri emateaz gain, iturriei, atsedeen-eremuei, garraio publikoari, intereseko lekuei eta abarri buruzko informazioa eskainiko dute kartelek.

# “Trizikloak mugikortasun jasangarria, osasungarria eta, gainera, inklusiboa eskaintzen du”

Duela bi urte, Errenteriako Gurutze Gorriko presidente José Antonio Fernándezek Oiartzun ibaiaren inguruko kirolaren eta aisiaren sustapenari buruzko jardunaldi batzuetan parte hartu zuen. Jardunaldi horietan, mugikortasun urriko pertsonak ere bidegorriak baliatzeko modua bilatu behar zela planteatu zuen, eta aukera on bat proposatu zuen: trizikloa. Joan den abenduan, Errenteriako Biltzarrak bultzatuta eta Gipuzkoako Gurutze Gorriak babestuta, proiektu horrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren ‘Guztiok mugituz’ saria jaso zuen lehen edizioan. “Hasiera-hasieratik, proiektu hori jasangarria eta osasungarria zela ulertu zuen Mugikortasuneko diputatu Marisol Garmendiak (bizikleta bezalakoa, baina, gainera, inklusiboa)”, adierazi du Gipuzkoako Gurutze Gorriko Osasuneko ardudun Maider Gonzálezek.



“Mugikortasuna eskubide bat da, adina edozein izanik ere, eta hori lortzeko baliabide bat da trizikloa”, gaineratu du. “Haurrak ohituta daude trizikloa erabiltzera, baina gaixotasunagatik, ezintasunagatik edo oreka-arazoengatik bizikleta erabiltzerik ez duten helduek nahiago izaten dute etxean geratu, oztopo mental eta emozionalen ondorioz”. José Antonio Fernándezek gehiago esan du. “Pertsona batzuk askotan ibiltzen dira bizikletan, eta urteak daramatzagu oso garrantzitsua eta ona dela esaten. Etxean



utzi behar al ditugu oreka eragozten dien belarri-arazo txiki batengatik? Ez da bidezkoa”.

Proiektuaren bidez, “autonomia handiagoa emanik ere trizikloa erabiltzea eragozten duen sentimendu oro (barregarri geratzearen sentimendua, beldurra edo lotsa) desagerrarazi nahi da”, adierazi du Gonzálezek. “Osasuna, gaixotasunik eza ez ezik, ongizate fisiko, psikiko eta soziala ere bada. Trizikloak autonomia ematen du, eta hori bizi-kalitatea da, osasuna da”. Zenbait jarduera egin dira garraio-bide mota hori normalizatzeko. Horietako bat “mugikortasun seguru eta osasungarriaren eskola da; karpa batzuetan, Gurutze Gorriko kide espezializatu batzuek bide-segurtasunari buruzko araudia eta trizikloaren erabilerak dakarren ongizatea eta ematen duen autonomia azaltzen dute. Bestalde, eskola praktikoak ematen dira beldurrari eta lotsaren sentazioari aurre egiteko”. Fernándezek adierazi duenez, normalizazio horretan laguntzeko, “Errenteriako Gurutze Gorriak trizikloak erabiltzen ditu bere jarduera eta zerbitzuetan”. “Halaber, irteerak antolatzen ditugu mugikortasun-arazoak dituztenentzat eta arazorik ez dutenentzat, eta denok trizikloan joaten gara”, gaineratu du Gonzálezek. “Dagoeneko Oarsoaldeko bidegorrietan izan gara, eta probintziako beste batzuetara ere joango gara. Jendea bere kabuz geratzen ere hasi da”.

Trizikloa, bateriarekin edo gabe, gurpil bikoitza aurrean edo atzean duela, osagarri ugariarekin edo osagarririk gabe, urrats irmoak egiten ari da bere normalizaziorantz.